

Partiturak digitalizatzeko laguntzen oinarriak

2020ko deialdia

Laguntzen deialdi honen zenbatekoa 40.000 euro izango da guztira.

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak honako hauek aurkeztutako laguntzen eskaerak aztertuko ditu: jarduera nagusia orkestra-musikako obrekin, ganbera-musikakoekin eta beste kontzertu-formatu batzuetako obrekin egiten duten **SGAEren bazkide diren musika editoreek**. Hala, egungo musika klasikoarekin lotutako proposamenak onartuko dira (orkestrarako, ganberako eta beste kontzertu-formatu batzuetako obrak), eta ez dira folklore- eta herri-musikako obrak onartuko.

Editoreek ezingo dute, SGAE Fundazioak eskainitako diru-laguntza guztien artean, laguntza bat baino gehiago jaso urte berean. Salbuespen bakarra diru-laguntza hauek izango dira: *Nazioartean musika sustatzeko bidaientzako diru-laguntzak*. Hori jasotzea bateragarria da beste diru-laguntza batzuekin.

Bigarrena: proiektuen tipologia

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute SGAEren bazkide diren editoreek bidalitako proiektuek (ikus lehenengo klausula). Era berean, proiektuak orkestra sinfonikorako, ganbera-taldeetarako (opera, zarzuelak eta balletak) eta musika klasikoko banda sinfonikoetarako musikako lan bat edo batzuk digitalizatzera bideratuta egon behar dira. SGAEren bazkide diren egileen lan originalak izan behar dira, eta editoreak haien edizio-eskubideak izan behar ditu, egileekin kasuan kasuko musika-ediziorako kontratua sinatu duelako. Ez da lanen aldaketarik, moldaketarik edo bertsiorik onartuko, ezta dagoeneko digitalizatutako obrarik ere.

Proiektuarekin batera, horren aurkezpena eta editorearen zinpeko deklarazioa (oinarri hauetan 1. eranskin gisa erantsitako ereduari jarraituz) aurkeztu behar dira, eta, horren bidez, baieztatu egin behar da digitalizatzeko laguntzaren deialdira aurkeztutako lanak ez daudela dagoeneko digitalizatuta. Proiektua 2020ko urtarrilaren 1aren eta 2021eko irailaren 30aren artean egin behar da.

Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Eskaera bakoitzari eslehi dakioken zenbatekoa ezingo da 1.500 € baino gehiago izan (zergak barne). Ordainketa oinarri hauen zortzigarren klausulan ezarritakoaren arabera egingo da, hau da, sinatu beharko den hitzarmenari lotutako fakturaren bidez, eta PFEZren kasuan kasuko atxikipenak aplikatuko dira.

Laugarrena: agiriak

Eskaerek agiri hauek izan behar dituzte:

1. Eskaera-inprimakia, behar bezala beteta.
2. IFK txartelaren kopia.
3. Pertsona juridikoak diren editoreen kasuan, hitzarmenaren sinatzaileak administratzaile nahiz ahaldun gisa argitaletxea ordezkatzeko duela egiaztatzen duen eskrituraren kopia ziurtatua, argitaletxearen izaera juridikoa edozein ere den (merkataritzakoa, elkarte edo fundazioa). Eskritura behar bezala inskribatuta egon behar da kasuan kasuko erregistroan (Merkataritza Erregistroa, Elkarten Erregistroa edo Fundazioen Erregistroa).

4. Laguntzaren deialdira aurkezten den proiektuaren deskribapena eta kronograma. Honako hauek barne:
 - Digitalizatu beharreko lanaren edo lanen zerrenda, honako hauek adieraziz: egilea, izenburua, lekua, argialetxea eta argitalpen-urtea.
 - Proiektuaren emaitza gisa sortuko diren irudien kopurua eta ezaugarriak. Dokumentu originalen tamaina (A4, A3, etab.).
 - Digitalizatuko diren ale originalen kontserbazio-egoera.
 - Lanak non kargatuko diren (izena eta URL helbidea).
5. Kostuen aurrekontu xehatua.
6. Lanen eskubideak egiaztatzen dituen edizio-kontratua edo SGAEk igorritako dokumentua, lanak bere alde, haien editore gisa, inskribatuta daudela egiaztatzen duena.
7. Beste erakunde batzuen lankidetzaren ziurtagiria, hala badagokio.
8. Editorearen zinpeko deklarazioa (1. eranskina)
9. Eskatzaileak sinatutako baimena, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haren datu pertsonalak erabil ditzan. Aurkeztu beharreko baimen-eredua SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri, laguntza honen deialdiaren atalean.

Bosgarrena: ebaluazio-irizpideak

Jasotako proiektuak ebaluatzeko, proiektu osoaren kalitatea kontuan hartuko da. Gainera, haren bideragarritasuna balioetsiko da, aurkeztutako aurrekontuen, izan dezakeen eragin soziokulturalaren eta jarritako baliaideak aplikatzeko eraginkortasunaren arabera.

Seigarrena: eskaerak aurkeztea eta epea

1. Eskaeraren inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak, eskaerak jasotakoan, horren berri emango du, eta falta diren agiriak jakinaraziko dizkie dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenei. Eskatzaileari eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio guztia ez dagoela adierazten bazaio, hamabost (15) egun naturaleko gehieneko epea izango du eskaera zuzentzeko, SGAE Fundazioak dokumenturen bat falta dela jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Eskaera adierazitako epean zuzentzen ez badu, ez da aintzat hartuko.
2. Partiturak digitalizatzeko laguntzen 2020ko deialdirako eskaerak aurkezteko epea 2020ko urriaren 2an (ostirala) hasiko da, eta irekita egongo da 2020ko azaroa 30ko (astelehena) 24:00ak arte. Ez dira aintzat hartuko epe horretatik kanpo heltzen diren eskaerak.

Zazpigarrena: eskaeren ebazpena eta prozedura

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da arauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak laguntzak emango dituen erabakiko du eta erabakia interesdunei idatziz jakinaraziko die.
3. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

Zortzigarrena: lankidetzaren gauzapena

SGAE Fundazioak eta onartutako proiektua duen eskatzaileak lankidetzaz hitzarmen berezia sinatuko du, eta, bertan, ezinbestean agertu beharko dira agiri honetan zehaztutako oinarriak eta ondoren aipatuko dugun informazioa:

1. Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektua hasteko eta amaitzeko epea.
3. Esleitutako laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa, SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa duen materiala eta amaierako memoria, baita proiektuaren memoria ekonomikoa ere, editoreak digitalizatorako dituen hornitzaileen fakturen kopia barne).
6. Bidali digitalizatutako partiturak zabalteko kopia duen USB memoria.

SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari eskatuko dio hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentazioa. Dokumentazio hori helarazteko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, SGAE Fundazioak hori eskatzen duenetik. Hautatutako pertsonak ez badu dokumentazioa epe horretan helarazten, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Dokumentu guztiak aldean artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Halaber, SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari helaraziko dio aldeek sinatu beharreko hitzarmena. Onuradunak gehienez bi (2) hilabete epea izango du hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, laguntza kobratzeko ordainketa-agiriarekin edo fakturarekin batera (kasuaren arabera). Onuradunak hitzarmena edo ordainketarako dokumentua edo faktura aipatutako epean helarazten ez baditu, laguntza galduko du.

Bederatzigarrena: norberaren datuak isilpean gorde eta babestu beharra

Proiektuaren kudeaketan aldeek ematen duten informazio guztia konfidentziala da eta ezingo zaie hirugarrenei ezagutzera eman. Era berean, ezingo da erabili ezarritako helburuetarako ez bada, indarreko legeriak zehaztutako salbuespenetarako ez ezik.

Eskatzaileak borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta laguntzen deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira bakarrik. Datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko eta horien aurka egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoen arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. Idazkiak izena, abizena eta baliatutako eskubidea adierazi beharko ditu, eta NAN/AIZ edo pasaportearen kopiarekin batera aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Interesduna behartuta dago aldaketak jakinaraztera, horiek gertatzen diren mementotik aurrera.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, agiri honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak isilbidez onartzen ditu.
2. Eskatzaileak ez dio SGAE Fundazioari inolako erantzukizunik egotziko, proiektua egiteko eta garatzeko orduan indarreko legeria edonola urratzen duenean.

1. ERANSKINA

LAGUNTZAREN ESKATZAILEAREN ZINPEKO DEKLARAZIOA

..... jaunak/andreak, adin nagusikoak, eta zenbakidun NAN/AIZ duenak, musika-argitaletxearen izen eta ordezkartzan,(administratzaile/ahaldun) gisa (erakundearen helbidea:; IFK zenbakia:)

AITORTZEN DU:

1.- **SGAE FUNDAZIOA**ri helarazitako informazio guztia, digitalizatorako laguntzen deialdira aurkeztutako lanei buruzkoa, egiazkoa dela.

2.- Bere erantzukizunpean baieztatzen duela deialdi honetara aurkezten duen lan bakar bat ere ez dagoela aldeztatik digitalizatuta.

3.- Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta xedapen gehigarrietan ezarritakoari jarraikiz, nire datu pertsonalen erabilera baimentzen dudala, laguntza-eskaera izapidetzeko beharrezkoa bada. Badakit datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko, horien aurka egiteko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak balia ditzakedala **SGAE FUNDAZIOA**ren edo **SGAE**ren aurrean, SGAE Fundazioaren eta SGAEren zerbitzu juridikoetara idazkia igorritz (egoitza soziala: Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril, Espainia).

Eta, nire deklarazioa hala jasota gera dadin, hor adierazten dudana guztia hitzemanaz eta nire gain hartuz, **deklarazio hau sinatzen dut**,(e)n, 2020koren (e)(a)n.

Sinadura:

Informazio gehiago: ayudas@fundacionsgae.org